

“OPORRAK BAKEAN” 30 UME SAHARRARENTZAT

Lankidetzaren Bulegoak hitzaldi bat antolatu du otsailaren 20rako, ekimen solidario horren berri emateko



Duñike Agirrezabalaga Lankidetzako zinegotziak adierazi duenez, 2019. urte honetan **33 urte betetzen dira Donostian “Oporrak Bakean”** programa abian jarri zenetik, bere ardurapeko bulegoaren, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkartearen eta Fronte Polisarioaren arteko lankidetzari esker.

”OPORRAK BAKEAN” programa honetan datza: Donostiako familia batzuek **10 eta 12 urte bitarteko ume sahararrak hartzen dituzte beren etxeetan, udan, bi hilabetez**. Ekimen honen helburua da, ahal dela, adingabe horiek kanpamentuetan bizi dituzten bizi-baldintza gogorrak arintzea. Hemen dauden bitartean, osasun-azterketak egiten zaizkie, denetarik jaten dute, eta, batez ere, basamortuaz oso bestelako ingurune bat ezagutzen dute.

Duñike Agirrezabalaga zinegotziak azaldu duenez, “uda honetarako helburua da **Euskadin 300 haur hartzea. Horietatik hogeita hamar, gure hirian** izatea nahi dugu, uztailean eta abuztuan, eta, horregatik, donostiarren elkartasunari dei egiten diogu **15 harrera-familia berrik parte har dezaten proiektuan**. Izena emateko epea **apirilaren 15ean amaituko da.**”

Duñike Agirrezabalagak adierazi duenez, “urtero bezala, Lankidetzaren Zinegotzigoak informazio-hitzaldiak antolatu ditu, interesa duten pertsonak harreraren nolakoaren eta baldintzen berri jakin dezaten. **Lehenengoa datorren asteazkenean, otsailaren 20an, izango da**, Udaletxeko Gobernu Batzordearen aretoan, **18:00etan**. Martxoan egingo da beste bat, baina oraindik ez da erabaki zer egunetan.”

Esperientzia honetan parte hartu eta ume horietako bat hartu nahi duten familiek **apirilaren 15era arte** aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak, **Lankidetzaren Bulegora joanda (Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65, 1.a), 943 48 19 83/630 533 468** telefonoetako batera deituta edo helbide honetara mezu elektronikoko bat bidalita: **oporrbakean@donostia.eus**. Web orrian ere kontsultatu daitezke: **www.oporrbakeandonostia.eus/es**

Informazio gehiago nahi izanez gero, lotura honetan lor dezakezu: <http://oporrbakean.eus/es/>. Bertan, Euskadi osoan abian jarritako kanpainaren berri izango duzu. “*Orain bi familia ditut: bat Saharan eta beste Euskal Herrian*” du izenburu aurtengo kanpainak.